

Eusko Jaurlaritzak atea ireki die zulatzaileei Gasteizko Mendietan

Hautsak harrotu ditu Gasteizko Mendiak parke natural ez izendatzeko EAEko Ingurumen Sailak hartutako erabakiak. Horren ondorioz, Subillan haustura hidraulikoko lehen bi putzuak irekitzeko asmoak indarra har dezake berriz.

| UNAI BREA |

Argazkia: Axier Lopez

HEGO EUSKAL HERRIKO zati handi bat dago haustura hidrauliko bidez gasa ustiatu nahi duten enpresen jomugan. Araba eta Bizkaiaren kasuan, ia lurralde osoa. Gauzak astiro doaz ordea. Bistan da oraindik ez direla zulatzen hasi; eta zulatzen hasteko unea atzeratuz doa gainera. 2007rako lehen putzuak egiteko asmoa zutenek nekez pentsatuko zuten 2014 ere makinak lanean jarri gabe joango zitzaienik.

Munduko bazter honetan frackingaz hitz egiten hasi zenean, begi guztiak Subilla herritik gertu dagoen eta alboko argazkian ageri den zelaia begira jarri ziren, aurreikusita baitzegoen lehen bi putzuak han egitea. Baina hala egin nahi zuten enpresek bazuten zalantzarako arrazoirik. Aipatutako eremua Gasteizko Mendien barruan dago, eta oraintsu arte Gasteizko Mendiak parke natural bihurtzeko tramiteak martxan izan dira. SHESAren (hidrokarburoen EAEko enpresa publikoa) eta Heyco eta Cambria konpainien arteko bileretako aktetan irakur daitekeenez, 2007an Heycoko presidenteak galdetu zuen ea ingurumen aldetik oztoporik egon zitekeen frackingarako; SHESAko ordezkari batek erantzun zion Gasteizko Mendiek etorkizunean lor zezaketen babes araudiarekin kontuz ibili beharko zutela. Babes hori gauzatzeko urratsak eman ahala, Subillan bi putzu zulatzeko asmoa bazterrean geratu zen.

Ingurua parke natural izendatzeko prozedura nork eta PPK bultzatu



Euskal Herriko lehen bi fracking putzuak Gasteizko Mendietako paraje honetan egitea aurreikusita zegoen. Eremua parke natural izendatzeko prozedurak asmoa bertan behera utziarazi zuen, baina azkenean babesik gabe geratu da ingurua.

du, Gasteizko Udaletik. Hara non baina, azkenik ezetz esatea erabaki duen Jaurlaritzak. Parke natural ez, Europako babes-eremu kategoria, ahulagoa, emango zaie Gasteizko

Subillako zelaia, hala nola Gasteizko Mendien bost seiren, lege-babesik gabe geratu dira

Mendiei, eta hasieran aurreikusitako gainazalaren zati txiki bati besterik ez. Argudio nagusia da aintzat hartu dituztela inguruko herrietako lehen sektoreko langileen alegazioak, haiek ez baitzuten nahi babes figura sendo bat ezartzerik, horrek

euren jardun ekonomikoa oztopatu zuelakoan.

Kontua da Subillako zelaia, hala nola Gasteizko Mendien bost seiren, lege-babesik gabe geratu direla. Zulatzaileek libre dute bidea. Haustura hidraulikoaren gorabeherak gertutik jarraitzen dituen Iker Armentia kazetari arabarrak txio-katu du: Jaurlaritzaren mezua da ez dela komeni Gasteizko Mendiei babes handia ematea, etekin polita eman dezakeen ingurua baita. Diskurtsoan nolabaiteko anbiguetateari eutsi badio ere, ekintzek garbi erakusten dute EAJ frackingaren aldeko posizioetara lerratuz joan dela —inoiz kontra egon bada—, Lakuara itzuliz geroztik. ■

